

09ko europar hauteskundeetarako egitasmoa

Aurkibidea

- 1.-Gure Europar egitasmoa
- 2.-Hauteskundeetarako testuingurua
- 3.-EB eta bere Instituzioei ematen zaien garrantzi eskasaren arrazoiak
- 4.-Europar Legebiltzarra, europar gogoaren motorea
- 5.-Europa eraginkorraren alde: Europa indartsuagoa izateko beharra
- 6.-Ekonomia
- 7.-Ardatz atlantikoa: garraio azpiegiturak sendotzea
- 8.-Europako Kanpo Politika eta Defentsa Politika
- 9.-Eguraldiaren aldaketa, ingurumena eta energia
- 10.-Lehen sektorea
11. Inmigrazio politika
- 12.-Kultura, Eleaniztasuna , Euskara eta Gazteria
- 13.-Hezkuntza
- 14.-Europa soziala
- 15.-Subsidiaritasuna
- 16.-Demokrazia parte hartzailea
- 17.-Europa: Baloredun Erkidegoa
- 18.-Europar Batasuna: bakerako eszenatokia

1.- Gure Europar egitasmoa

Euskal abertzaletasunak gure Herriaren etorkizuna hasiera hasieratik lotu izan du Europara eta Europaren aldeko mugimenduaren sorkuntzan sortu zituen Europa politikoaren inguruko iritziak eta ikuspuntuak.

Gure planteamenduak eta European gauzatu dugun ekimen politikoaren ardatz nagusiak honako hauek izan dira:

Gure diskurtsoaren lehen ardatza izan da Europa Federalean oinarritutako tesia, hau da politikoki egituratutako Europa eta potentzia izateko bokazioa duena nazioarte mailan eta mundu mailako erregio antolaketan inguruan: Marko politiko honetan Europa humanistaren aldeko apustua egin dugu, pertsona bera, politiken erdigunean jarriko duena eta kontinentean elkarrekin bizi diren nortasun ezberdinak, hizkuntzak, bizitzeko moduak eta kulturak bermatuko dituena. Europa Federala subsidiarotasun printzipioari zor zaion begirunean oinarrituta sortua eta honen agabera, administratiboki gorago egongo den Instituzioak ez du politika sektorialik kudeatuko beheragoko erakundeak eraginkortasunez egin ahal badu.

Gure europar politikaren bigarren zutabea da gure Herria Nazioa dela etengabe baieztatzea; eta, nazioa den aldetik, berari dagokio esparru politiko propioa Europa berri honen eraketan. Gure helburuaren arabera, Euskal Nazioa izango da Europa Federalaren subjektu eta protagonista politiko eta beronen barruan subiranotasuna partekatuko dugu berdintasunez etorkizuneko Federazioko kideekin batera.

José Antonio Agirrek 1949an esaten zuen Europaren egitura federal berria sortuko zela Estatuak subiranotasuna herrien esku uztean. Testuinguru horretan Euskadi autogobernatua ezartzen zuen kontinenteko gainerako Nazioekin batera eta berdintasunezko egoera batean. Zentzu honetan, Lehendakariak honakoa esaten zuen *“Estatuak lege, moneta, epaimahai, migrazio, gizarte laguntasuna, kanpo merkataritza, nazioarteko politika, ejertzitua, defentsa arloan eman beharko dituen ahalmenak dira erregimen autonomoak Estatuaren subiranotasunarentzat uzten dituenak”*

Europar Batasuna errealtate bilakatu da, Agirrereren hitzak eta hirurogeita hamar urte beranduago. Lehenago egin ez den eraikuntza da, aurrekari historikorik ez duena eta gaur egun ez da ez konfederala ez federala, baina bide horretan dago. Europa eraikitzen ari da nazio borondate ezberdinak lotzeko egitura zailaren bitartez. Egokiagoak izango diren nazioz gaindiko egiturak sortzen ari dira gure gizarteek aurrean dituzten erronkei aurre egiteko eta XXI mendek inposatzen dituen lanei ekiteko. Europar Batasuna, oraindik amaitu gabeko lana da.

Europar Batasunak bere garapenean ezarri du hainbat kontzeptu politiko eta instituzional zaharkituta geratu direla izateko eskubidea irabazi duten errealtate politiko europarrentzat. Horrela ba, antzinakoak ziren kontzeptu politikoek, hau da, Estatu eta independentzia, hasieran izan zuten zentzua aldatu dute. Gaur egun, estatuaren antolaketaren elementu eratzaileak eta politika tradizionalak, hala nola, moneta, kanpo harremanak eta defentsa... prozesu konplexuen bitartez transferitzen ari zaizkio nazioz gaindiko erakundeari. Subiranotasun absolutuak subiranotasun erlatibo eta elkarren menpekoek ordezkutzen dituzte.

Errealitate berriek paradigma aldaketa eskatzen dute estatu mailako nazionalismotik kosmopolitismora edo osoko unibertsalismora. Eta, egoera honetan Europak bere indar guztiz Xake jokoa jardun beharko du AEB, Txina, India, Brasil, Latino Amerika, Japon eta Errusia moduko potentziekin eta bere barruan banaketa ahultzaileak onartu gabe.

Aldi berean, azpimarratu beharra dago gure kontinentean, Europar Batasuna eratzeko prozesuarekin batera ere eman dela subjektu politiko berriak sortzea. Benetan ikusgarria da, azken hogeitun urteotan hogeitun bat herri Europa berriaren aktore bilakatu direla autodeterminazio printzipioari esker. Gehienak dira hildako inperioetatik eratorriak eta antzinako gudetatik eragindako unitate artifizialak apurtzetik eratorriak. Baina, nolana ere, esan daiteke europar eraikuntzak berak animatu dituela herri hauek estatu bilaka daitezkeen, estatu europarra bera izan da iraganeko estatu egiturak apurtzeko faktorea eta mugak gaitzetea eta osoko interkonexioa ahalbidetu da. Europar Batasunak, modu batean edo bestean, antzinako ohituretatik askatzeko bultzada eman du, mendeotako egitura historikoak arrakaldu ditu eta, azken finean, zerumuga berriak ireki ditu europar nazio eta herriek askatasunerako esparruak irabaz ditzaten eta aldi berean beren arteko dependentzia eta kontinentea den guztion etxean integratzea aldarrikatu.

Europar eraikuntzaren garapenak orain arte suposatu du eta etorkizunean ere suposatuko du aukera erabakigarria historiaren estatu arteko mugak diren orbanak ezabatzeko. Barneko zirkulazio askea eman ahal izango da eta mugek banatuta geratu diren herri eta nazioetan emango da topaketa: Zentzu honetan, euskal herrialde guztiek izan behar dituzte behar besteko tresnak, gune bateratua lortzeko aurrera egiteko pausuak eman ahal izateko eta administrazio, eragile eta hiritarren arteko kultur ekonomia eta gizartea lotzeko sareak eratzeko orduan. **EAJ-PNVk mugaz gaitzetea eta erregio arteko lankidetzaren onarpen juridiko eta politikoan aurrera egitea defendatuko du**, eta jarduerak hauek europar fondoetatik jasotzen duten finantzaketa handitzearen alde egingo du.

Esparru zabalago batean, EAJ-PNVk **Pirinioetako Konbentzioa** bultzatuko dugu, Europar Batasunaren erregio mailako politiketan berariazko onarpena izan dezan.

2.- Hauteskundeetarako testuingurua

2009ko ekainaren 7an izango diren Europar Legebiltzarrerako hauteskundeak konfiantzarik ezak eta balore galerak eragindako finantza eta ekonomia krisialdi sakona nagusi den egoera batean ospatuko dira.

2005eko europar hauteskundeetan aurreiritziak eta konfiantzarik eza izan ziren nagusi Europar Konstituzioaren erreformak eta Europar Ekialderantz egin zen zabalkundeak eraginda. Beste garaiak ziren haiek. Ekonomiaren egoera ona eta konfiantza ziren nagusi.

Orain, 2009 urtean, gutxiago hitz egiten da Europaz. Orain, 2009 urtean estatu barruari begiratzen zaio eta gutxietsi egiten da europar egitasmoa. Orain, ematen du Europar Batasuna kanpoko faktorea dela, batzuetan deserosoa edo itxurakoa soilik Europa

mailako hainbat buruzagirentzat. Babes politiko eta ekonomikoa berriro agertu da globalizazioaren diskurtsoaren ostean gordeta egon den hamarkadaren ostean.

Barrura egite honek, eta aldi berean kanpora konfiantzarik eza islatzeak ezin dute hiritarren parte hartzea bultzatu. Orain arte egin diren azterketen arabera, orain arteko arduragabekeria handitu ahal da hiritargoaren zati handi batek instituzioen aldetik-europar instituzioak barne- ikusten duten konponbide eskaintzarik ezak eraginda.

Orain, inoiz baino gehiago, denek parte hartuko duten bozketa zuzenaren bidez aukeratzen den europar instituzio bakarra datozen bost urteotarako berriztatzeari ekingo diogun une honetan, **EAJ-PNVk defendatuko du europar egitasmoa berriz nazionalizatzeko olatuak ez dezan oztopatu Europar Batasunaren batasun politikoa. Orain, inoiz baino gehiago indarrak bikoiztu beharko dira batasun politikorako urrats berriak emateko eta maila globalean dauden erronkei aurre egin diezaiegun. Erronka hauek dira eguraldiaren aldaketa, energia hornikuntza eta migrazioa eta azken aldiotan atzeraezin bilakatu dira. Europar Batasunak bide gurutzeta du aurrez aurre. Orain, inoiz baino gehiago sendotu beharra dugu Europarekiko dugun konpromisoa.**

3.- EB eta bere instituzioei ematen zaien garrantzi eskasaren arrazoiak

Zaila da agerikoa dena ukatzea, hau da, hiritargoa ez dago oso lotua europar egitasmoarekiko. Bata bestearen ostean etorri diren hauteskondeak eta hainbat inkestek haxe esaten dute eta europar instituzioak ere jakitun dira. Hogeita bost urteotan parte hartze tasa % 63tik igaro da (1979) % 45,7ra (2004). Izan ere, azken hamarkadan europar tratatuen inguruan egin izan den erreforman- Lisboako Hitzarmena indarrean sartzeko dago oraindik- bilatu izan da beti Batasunari herriaren legitimazioa ematea..

Alde batetik denon oroimenean ahuldu egin dira Europaren sortzaileak inspiratu zituzten printzipioak. Belaunaldi berriek ez dute buruan ,bake eta askatasunerako bidean XX. Mendeko guda ikaragarrietako esperientziak gaingitzen dituen Europa Batua. Europar Egitasmoa onartu egin da fenomeno naturala bailitzan eta eguneroko ahaleginik eta adostasunik beharko ez balu bezala . Europar Batasunak agian ez du jakin bere historia nola egokitu XXI. Mendeko gizartearen inguruabarretara edo beharrianetara. .

Beste alde batetik, hiritarren ikuspuntutik eta Batasunak kanpoan eta barruan dituen arerioen ahaleginari esker, europar fenomenoak konplexua, burokratikoa, despertsonalizatua eta urruna da. Hiritargoak zailtasun handiak ditu jakiteko nor zer egiten duen eta batzuetan baino ez du antzematen Batasunaren ahaleginari esker izan direla onura zehatz batzuk.

Hori gertatzen da batzuetan estatuetakoko gobernari batzuek modurik arduragabeen Batasunari egozten dizkiotelako , denon onerako egitasmoek batzuetan toki esparruetan dituzten eragin ezkorrak. Arduradun politiko hauek dira Bruselaren hartutako erabakiek eragindako onurak ere beren gain hartzen dituztenak.

Gainera, Legebiltzarrak berak ere ez du ohiko botere legegilea , Batzordeak eta Kontseiluak botere hau murrizten dutelako. Arrazoi horretatik ere eratortzen da hautesleen artean gero eta zabalduago dagoen arduragabekeria.

Halaber, zabaldu den pentsamoldearen arabera Europako Ekialderantz eman den zabalkundea goiztiarregia izan da eta Batasuna geldiaraztea eta eraginkortasuna galtzea eragin du. Gainera, uste hau sendotua izan da azken aldi honetan, adostasunera iristeko zailtasunak daudelako. Hau guztia ikusten da batasuneko hiritarren artean zabaldu den grinarik eza aztertuta.

EAJ-PNVren aburuz, lehenetsi beharrekoa da hiritargoari zuzendutako eta Batasuna osatzen duten herri guztietan era berdintsuan garatuko den komunikazio argi eta pedagogikorako politika martxan jartzea. Honen bidez azaldu beharko dira batasunaren ekimenerako arrazoia eta gizarteak ekimen honetatik dituen onurak. Ekimen bateratua garatu subsidiarotasun printzipioaren markoan garatu beharko da, Batasunak ez ditzan ukitu hurbileko instituzioek – hiritarregandik hurbilen daudenak direlako- hobeto eta eraginkorrago kudeatu ahal dituzten eskumenak.

Batasuna, Estatuak, nazioak, erregioak eta tokian tokiko botereak modu eraginkorrean bereganatzerik ez duten erronkei aurre egiteko eta erantzuna emateko egitura politikoa izan behar da, eta hiritarrentzat honela ulertu beharko lukete. Batasuna beraz, mundu mailako erregio erantzuna izango litzateke teknologiaren eta ezagupenaren iraultzaren eraginez globalizatu den munduak planteatutako erronkei aurre egiteko.

Halaber, eta “euroesklerosia” gainditzeko xedez, **EAJ-PNVren aldetik abiadura ezberdinetan aurrera egingo duen Europaren garapena aldarrikatuko dugu, kideak esparru ezberdinetan aurrera egiteko duten zalantzarik gabeko borondatean oinarrituta eta batzuek dituzten zalantzengatik ez daitezten oztopatu lankidetzan maila handiagoak bilatzen dituztenentzako aurrera egiteko aukerak.**

Hiritargoak antzeman beharko luke bere gogoak izango duela euro ezpetikoek *sine die* oztopatzerik izango ez duten ubidea, Moneta bakarra eta Schengen esparrua dira esparru estrategikoetako lankidetzarako behararen adibide.

4.- Europar Legebiltzarra, europar gogoaren motorea

Hala eta guzti ere, argi izan behar dugu Europar Legebiltzarra dela zuzeneko bozketaz aukeratua den Batasunaren Instituzio bakarra (eta ezagun diren nazioarteko erakunde guztiena) eta bere boterea indartu eta zabaldu da 1986 urtetik hitzarmenetan egin diren erreforma bakoitzarekin. Lisboako Hitzarmenean erabaki partekaturako prozedura legegilearen bidez (Batzordearen pare geratuko delarik) aurreikusten den Europar Legebiltzarraren boterearen handitzeari esker, hautesleari orain arte izan duen parte hartzeko inoizko gaitasunik handiena ematen dio.

Izan ere, Europar Legebiltzarra, Lisboako Hitzarmenaren bidez gauzatuko den Europar Konstituzioa eraberritzeko prozesuaren irabazle gisa geratzen da. Erreforma honen bidez, ia osoko boterea izango duen ko-legegile estatusa hartuko du (berariaz Batzordearenak diren gaien inguruan salbu) eta Kontseiluak aurrekontuen inguruan duen ahalmen bera izango du.

Halaber, Europar Legebiltzarrak kontrol politiko eta aholku kontrola egikaritu du. Batzordearen Lehendakariaren izendapena onartuko du. Hiritarrak jakin beharko du berak aukeratuko duen Europar Legebiltzarrak hartuko dituela gai gehienetan eragiten dizkioten “ europar legeak ”. Europar Legebiltzarrak, Lisboako Hitzarmena eskuan, urte anitzerako finantza markoa onartzeko funtzio erabakigarria izango du; era berean ardurak izango ditu hitzarmenen inguruan egingo diren berrazterketetan eta Batasunak izenpetuko dituen nazioarte mailako hitzarmenen onarpenean.

Europar legeria gero eta garrantzitsuagoa da eta kide diren Herrialdeetako barne legerian sartzen da edo zuzenean aplikatzen da kasu batzuen arabera; hortaz, agerikoa da Europar Legebiltzarrak gure bizitzan izango duen eragina, bereziki kontsumitzaileen eta ingurumenaren babesaren esparruan.

Batasuna eusten den hiru-hankakoaren markoan (Kontseilua, Europar Batzordea eta Europar Legebiltzarra), Europar Legebiltzarra da benetako europar gogoia ordezkatzen duena: kontseilua, estatueta interesen ordezkarria da eta Legebiltzarra hiritargoaren ordezkarria da. Hauek biek gorpuzten dute Batasunaren legezatasun bikoitzaren sistema. Batzordeak funtzio betearazle bitxi baina boteretsua betetzen du eta lidergo eta nortasun krisian dago une honetan Jacques Delors 1994 urtean joan zenetik eta Kontseiluaren (Estatuak) gehiegizko eraginpean dago, hau delarik Presidentea eta gainerako Komisarioak izendatzen dituen.

Halaber, 27 estatu kide hartzen dituen oraingo Europar , blokeo eta ezadostasun giroa nagusitu egin da Europar Kontseilu barruan. Gauzak horrela, alderdi politikoek nazio artean sinatu diren akordioei esker, Legebiltzarra izan da bere eskumeneko esparruan akordioak ahalbidetu dituen eta blokeoak gainditzeko laguntasunik handiena eman duena.

Euskadik ez du ordezkaritza zuzenik Ministroen Kontseiluan eta eragin mugatua du Batasuneko gainerako instituzio eta organoetan. Horregatik funtsezkoa da legebiltzarrean ordezkaritza egokia izatea euskal hiritargoaren interesen defentsa eraginkorra egin ahal izateko. Beharrezko dugu Euskadiren ahotsa Batasunaren bihotzera heltzea.

Espainiakoa moduko nazio-anitza den Estatuan hauteskunde barruti bakarra salbuespen bakarra da deszentralizatuta dauden gainerako Estatuaren artean (eta Frantzia moduko estatu zentralistarekin alderatuta ere). Gertakari honek kanporako proiektioa Espainiar estatu barruan berdintzea bilatzen du. Hori da ere europar hauteskundeetan parte hartzeko gogoia kentzen duen beste arrazoi bat.

Arestian esandakoaren arabera,**EAJ PNVk defendatuko du:**

- **Europa mailako talde politiko bakoitzak izan dezan hauteskunde kanpainan, Europar Batzordearen lehendakaritzara hautagaia aurkezteko eskubidea eta Europar Legebiltzarrari eman zaion aukeraketarako ahalmena. Horrela, prozesu politikoa gardenagoa izango da eta hautesleak hobeto antzemango du exekutiboaren presidentea.**
- **Hiritar bakoitzak izan dezan bere barrutiko zerrendaz gain, europar alderdiek osatutako zerrenda bozkatzeko eskubidea .**

- **Herrialdearen barne banaketaren zor zaion begirunea eta koherentzia bermatzeko europar legeria ,Europar Legebiltzarrerako hauteskunderi dagokienez ,eta bereziki hauteskunde barrutiak ezartzeari dagokionez.**

5.-Europar eraginkorraren alde: Europa indartsuagoa izateko beharra.

Europar Batasuna ez da egitasmo ekonomiko hutsa, gizarte egitasmoa da, balore gizatiarrena, Pizkunde, Ilustrazio eta Humanismoaren baloreen tradizio historikoak gorde dituen egitasmoa.

Buru argitasuna eta ausardia erakutsi zuten sortzaileek pentsatu zutenari jarraiki, Europa federalerako urratsak eman beharko genituzke, nortasun nazionalerako begirunea gordeko duen Europa eta nazioarte mailan protagonista polo anitzeko mundu honetan.

Helburu zehatzak definiturik dituen egitasmo politiko argi berria behar dugu. Egiteko handietan eta ez bestelakoetan kontzentratuko den Europa . Gainerako lanak , hobeto kudeatzen dituztelako bestelako Instituzioek, hiritarrendandik hurbilen daudelako. Halaber, Europak instituzio indartsuak izan behar ditu, hiritargoak era errazean antzemango dituenak. Beste alde batetik, instituzioek finantza autonomia sendoa beharko dute beren lidergo eta ardura sendotze aldera.

Funtsezkoa da Europar demosa, europar herria sortzeko bidean aurrera egitea, europar guztiei eragingo dieten gaien inguruko eztabaida emango den europar esparru publikoa sortzearen bidez eta europarrek izan dezaten europar nortasun propioa. Hau guztia, esparru honen barnean bizi diren politika, kultur eta hizkuntza propioa duten erkidego aniztasunari izango zaion begirunearekin.

Europar herria osatzeko bidean, beharrezkoa izango da Herri batzuk abangoardian jartzea, erritmo ezberdinez osatutako markoan; edo, arestian aipatu den moduan, abiadura anitzeko European. Aldi batekotasunak ez dezan oztoporik jarri merkataritza libererako esparru ekonomiko hutsa gaitutuko duen Europar Batasun Politikoa eratzekeo prozesu konplexurako bidean.

Gehiengo kalifikatuak eta kasuan kasuko erabakiak hartzeko gehiengo sinpleak iragazki egokiak dira estatuz gaitutuko erakundeek funtzionamendu eraginkorra izan dezaten. Talde barruan , helburu ezberdinak dituzten helburuen artean gai estrategiko baten gaineko aho-batekotasuna bilatzeak blokeoa eta paralisia eragiten du *de facto*

Arlo batzuetan, Herrialde batzuek aurrerako pausuak eman dituzte, adibidez *Schengen gunea* edo *euro-aldea* izeneko horietan. (16 Estatuk osatzen dute talde hau), lankidetzazko estrategikorako eredu izan ahal dira oraindik aho-batekotasunerako araua nagusi den bestelako esparru estrategikoei begira. Abangoardia hau beti egongo da irekita, markatutako abiaduran aurrera egiterik ez duten EBko kideak sar daitezten, hala nahi badute.

Abangoardia talde hauek, neurri koordinatuak hartzearen bidez osatu beharko lukete hazkunde ekonomikoaren ahultasunari edo langabeziaren mehatxuari aurre egiteko tresna. Talde hauek lideratu beharko lukete langileen babeserako araudien inguruko

denontzako legeria egitea eta esparru fiskalean koordinatzeko neurriak ezartzea. Halaber, indarrak batu beharko lituzkete Lisboako Estrategiaren helburuekin bat etorriko litzatekeen I+G+B europar politika martxan jartzeko ahaleginari ekiteko, gaur egun dagoen estatuen zatiketa gainditze aldera. Halaber, adostasuna bilatu beharko litzateke kanpo politikan eta gutxieneko oinarriak ezarri beharko lirateke europar ejertzitza eratzeko. Hauek guztiak dira lehenetsi beharreko ekimenak.

Era berean, energia moduko arlo estrategiko baten inguruan politika bateraturik ez dago eta horrek eragiten du hidrokarburoen produzitzaileen aldetik nagusi den zen *divide et impera* delakoa. Halaber, gure gizarte ongizatearen jasangarritasun eta iraupenerako arriskua suposatzen du .

Europak aurrera pausu eraginkorrak eman behar ditu oraindik intergubernagarritasunak zuzentzen dituen sektore estrategikoetan eta politikak bateratzearen aldeko apustua eginez. Zentzu honetan, gehiengoan sisteman oinarritutako batasunaren metodoa sendotzea funtsezkoa da XXI. Mende honetan munduko gizarteak planteatzen dituen arazo eta erronkei aurre egiteko orduan.

EAJ-PNVk Europa sendoagoa nahi du. Batasun politiko maila handiagoa defenditzen du.Hori egin ezean, Europak eta europar hiritarrek bigarren mailako esparru politikoa hartuko luke eta derrigortuta egongo lirateke etorkizuneko potentzien planteamenduetara makurtzera

6.- Ekonomia

Gaurko krisialdia da azken 70 urteotan izan den larriena eta ez du aurrekaririk mundu osoan zabaltzen delako, hasieran eta ondorioetan. Gainera, merkatuek erakutsi dute ezgai direla beren kabuz erregulatzeko baliabideak hobeto banatzeko eta gizartearen eraginkorrago izateko. Jarduera ekonomikoan nagusitu dira arduragabekeria eta diruzalekeria eta ondorioz etorri da bizi dugun egoera ekonomiko latza.

Agerian geratu da honakoa: gobernuek kudeatzen duten finantza arautzeko oraingo markoa ez da gai finantza sistema globala arautzeko. Jasanezina da estatuetako gobernuek globalizatutako finantzak gainbegiratzea eta kontrolatzeko; horrela, koordinatu gabeko jarduera gauzatzen da.

Errealitate honi aurre egiteko, gobernatzea globalizatu behar da Herrialdeen arteko lankidetzaren bidez.

Finantza merkatu globalen harmonizazioa eman dadin , Herrialdeen arteko lankidetzaren estuagoa da beharrezkoa, bertan sartzen direlarik garapen bidean daudenak eta garatutakoak, ez soilik finantza arloko arautzean baizik eta makroekonomia globalean eta moneta politikan ere .

Krisialdi honek Europaren bi dimentsio baikor jarri ditu agerian, eta gure arteko banaketak dakartzan alde ezkorak ere.

Euroa, europar eraikuntzaren ikurrik ikusgarriena eta praktikoena, gure ekonomiaren zainzailearen egitekoa egiten ari da , moneta bakarra onartu duten 16 herrialdeetan, nazio bakoitzeko moneta ahulen arteko devaluatze lehiakorrak ekidinez.

Halaber, europar eredu sozialak osasun zerbitzu unibertsalarekin eta langabeziagatik laguntasunekin, europarren giza-sufirimendua arintzen du, lur planetako beste eskualdeetako egoerekin alderatuta.

Kontrako alderdian, krisialdiak agerian uzten ditu, Europa politikoak baino arinago aurrera egiten duen Europa ekonomikoan instituzio politiko eraginkorrik ezak eragiten dituen mugak.

Europar ekonomiak estuki lotuta daude baina ez dugu europar gobernu ekonomiko baturik; ekidin ezinezko helburu beharrezkoa da epe labur eta ertainera politika fiskal eta laboraletan harmonizatzea gizarteko *dumping*-a desagertuko den europar esparru bakarra izate aldera.

Etorkizuneko erronka handia da gure ekonomien lehiakortasuna zaintzea, aberastasun, justizia eta berdintasunerako erreferente den gizarte kohesio ereduaren alde egitearekin batera.

Europak garrantzia galdu du munduan Europako egitura demografiko zaharkituak eraginda eta ekonomia gainerakor boteretsuek praktikatzen duten gizarte dumping-aren ondorioz. Horrek arriskutan jartzen da europar eredu sozioekonomikoaren jasagarritasuna. Testuinguru honetan, arlo ekonomiko eta sozialetan funtsezkoa da berrikuntza kontzeptuaren garapena, gure industria ehunaren lehiakortasuna zaintze eta mantentze aldera.

EAJ-PNVk honakoa defendatzen du:

- **Estatuen borondateak baldintzatuko ez duen aurrekontuen autonomiadun Europa**
- **Finantzak gainbegiratzeko eta kontrolatzeko Europar Zerbitzua eratzea.**
- **Euro-guneko Estatu guztiek bermatuko dituzten Euro-bonoak jaulkitzea.**
- **Politika fiskal eta soziala gero eta gehiago bateratzea, merkatu bakarrean sakontzeko eta solidariotasun printzipioaren arabera jarduteko.**
- **Europar neurriko berrabiatze eta inbertsio plana egitea eta bultzatzea, bereziki I+B+G arloan; horrekin batera, patenteen erregistro europarra, krisi ekonomiko eta finantzarioari aurre egiteko berrikuntza lagunduko duten neurrien bidez.**
- **Balore kode loteslea onartzea, sistema ekonomikoari etika gizatiar sakona emateko.**

7. Ardatz atlantikoa: garraio azpiegiturak sendotzea

Euskadi gune atlantikoan kokatuta dago, europar geografiaren barruan garrantzi handiko esparrua eta Batasunaren itsasalderik nagusia dena, eta ondorioz, Europarako *sarbidea* da.

Dena dela, EAJ-PNVk jakin badaki lurralde atlantikoek duten arriskurik nagusienetakoa dela ekonomikoki boteretsuenak diren estatuek osatutako gunetik kanpo geratzea, erdigunea kontinenteko erdi geografikoan kokatzeko joera nagusia dagoelako.

EAJ-PNVren iritziz, lotura atlantiko eraginkorra gauzatzea da Europar Batasunaren barruan lehenetsi beharreko erronka garrantzitsua.

EAJ-PNVren aburuz Europa barruko Garraio (RTE-T) sarearen gaineko politika aztertzeko prozedurak lurralde kohesio kontzeptuaren inguruko irizpideak jarraitu behar ditu, honako alderdi hauek sendotuz:

- Lurraldeen barruan maila ezberdinen arteko solidariotasuna.
- Kalitatezko zerbitzuak izateko aukera berdintasuna (garraioa, informazio eta komunikazio teknologiak, interes orokorreko zerbitzuak) bermatzea hiritar guztientzat, berdinean delarik beren kokapen geografikoa.

EAJ-PNVk garraio politika komodal garatzea defendatuko du, hau da, tren bidezko garraioa eta integratutako itsas politika izango direlarik errepidearentzako benetako kompetentzia, eta horrela emango zaielarik erantzuna ingurumenaren eta eguraldiaren gaineko kezkei.

Euskadin itsas bideen potentzialak babesten ditugu, Bilbao eta Brujas hirietako portuen artean 2007 urtean ezarri zen itsas bideak erakusten duen legez.

Azken finean, EAJ-PNVk Europako Garraio Sare berria garatzea defendatuko du, honako hauen alde:

- Aurrealde atlantikoa sustatzea, beronen baztertzeko ekiditeko.
- Eguraldiaren aldaketaren kontrako borroka egiteko.
- Tren eta itsaso bidezko merkantzien garraioa sustatzeko.
- Sare intermodal eta interoperagarriak sortzeko.
- Mundu mailan Europaren lehiakortasuna handitzeko.
- Nazio eta erregioen parte hartzea bermatzeko Europako Garraio Sarearen planifikatze eta garatzean.
- Erregio arteko loturak hobetzeko.
- Garapen ekonomiko eta sozialari eta erregio arteko lehiakortasunari laguntzeko.
- EBk sare azpiegiturak garatzeko ematen duten diru kopurua handitzeko.

8.-Europako Kanpo Politika eta Defentsa Politika

Europar Batasunak bere ikusgarritasuna handitu behar du nazioarte mailako zuzenbidezko subjektua den aldetik. Batasunaren alderdi hau sendotzean, onurak izango ditu Batasunaren beraren sendotasunak ere. Izate oro, bi alderditatik baieztatzen da: barrukoa eta kanpo aldekoa: Gainera, Estatu kideek nazioarte mailan izango duten garrantzia, gainerako kideekin Europar Batasunaren bidez egiten den jardueraren arabera baita. Horregatik ba, nazioarteko esparrua izan beharko litzateke lehenetsi beharrekoa, datozen garaiotan beharrezkoak izango diren adostasunak lortze aldera. Besteak beste eguraldiaren aldaketak, energiak, finantza merkatuek, migrazioak, krimen

antolatuaren kontrako borroka, segurtasunak edo nazioarte mailako egonkortasunak maiuskulaz idatzitako kanpo ekintza dute beharrezko.

Merkatal edo ekonomia arloko ikuspuntutik ikusita, Batasunak bere berrogeita hamar urteotan eratu du nazioarte mailako akordio sarea hainbat gairen inguruan (lankidetzarako garapena, Ingurumena, nazioarteko merkataritza...) Era berean, Kanpo Politika eta Segurtasun arloan, azken urteotan garatutako jarduera garrantzi handikoa izan da kopuru aldetik(Balkanak, Afganistán, Errusia, Ukraina, Georgia, Mediterranea, e.a.)

Dena dela, jarduera aberats hau ez da ikusgarria izan lidergo eta adostasun terminotan aztertuta. Batasuna kanpotik ikusten dute bere arlo ekonomiko edo merkataritza kontuan hartuta, baina oso gutxitan antzematen da bere arlo politikoan.

EAJ-PNVk honakoa defendatuko du:

- **Europar zerbitzu diplomatikoa sortzea (kanpo ekintzarako europar zerbitzua, Lisboako Hitzarmenak ezarritako terminologiaren arabera) eta Kanpo Ekintzarako Ministroa izendatzea. Funtsezkoak dira biak epe laburrean Europar Batasunarentzat, Batasunari ikusgarritasun handiagoa emateko.**
- **Europar Batasunaren irudia zabaltzea , garapenerako lankidetzarako liderra den aldetik. Honek lagunduko lioke nazioarte mailan indartzen.**
- **Batasuna barnetik sendotuko duen Kanpo Politika eta Denontzako Segurtasun politika garatzea. Aldi berean, solidariotasunean eta Giza Eskubideekiko begirunean oinarritutako nazioarteko ordena sortzen lagunduko duena; azken batean, diplomazia erabiltzea bakerako tresna gisa.**
- **Alde aniztasunaren eraginkortasuna sendotzea eta kanpo ekintzan denon interesen defentsaren egituratze egokia egitea. Aldi berean , Europar baloreen sistema kanpoan islatzea bilatzea.**
- **Europar batasunak eserlekua izan beharko luke Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan. Kontinenteak ordezkari izango luke Nazio Batuetan eta horrela bakea, egonkortasuna eta oparotasuna ahalbidetuko luke mundu osoan.**
- **Atzerriko politikak benetako europar defentsa behar du Estatu bakoitzak EBren zerbitzura jartzen dituen soldatuek osatutako zuzendaritza bakarrarekin. Europar defentsa bateratua zutabe indartsu eta sinesgarria izango litzateke eta orekarako faktorea izango litzateke Aliantza Atlantikoan.**

9.-EGURALDIAREN ALDAKETA, INGURUMENA ETA ENERGIA

Eguraldiaren aldaketaren kontrako borroka eta energiaren gaineko politika dira gaur egun gobernu guztiek aurrez aurre dituzten erronkarik garrantzitsuenetarikoak, baina denborak aurrera egin ahala, indar handiagoz ekin beharko zaie erronka bi hauei. Izan ere, eguraldiaren aldaketa eta energia, demografia eta globalizazioarekin batera, Europar Batzordearen gai nagusienak dira “*Assesment of future challenges for EU regions*” izenburupean argitaratu den agirian.

Eguraldiaren aldaketaren kontrako borrokak Europa mailako ahalegin koordinatua behar du eta gobernu maila guztien parte hartzea, bakoitzak lagundu ahal duen neurrian. Beraz, maila anitzeko ikuspuntua da beharrezkoa eguraldiaren aldaketaren kontra egiteko eta politika guztietan nagusitu behar den garapen jasangarriaren alde. Euskadi, parte hartzen duten administrazio guztien eta hiritar guztien ahaleginari esker, asko du esateko eta eskaintzeko.

2009 urte amaieran Copenhague hirian ospatuko den gailurrak era erabakigarrian lagundu beharko du eguraldiaren aldaketaren kontrako borrokan ; era berean indartu beharko du EBk mundu mailan duen egitekoa eta sendotu beharko ditu 2020 urterako ezarri diren helburuak: negutegi eragina duten gasak %20an gutxitzea, eraginkortasun energetikoaren %20ko hobetzea eta energia berriztagarrien % 20 kontsumoa.

EAJ-PNVk honakoa defendatuko du:

- **Energiaren gaineko politika berria eta eguraldiaren aldaketaren kontrako borroka izan beharko lirateke garapen jasangarri berriaren ardatzak.**
- **Lisboako Hitzarmena indarrean jartzen denetik, europar politika batua garatzea (orain arte ez dago horretarako oinarri juridikorik ; ondorioz, 27 dira energiaren gaineko politikak)**
- **Energiaren gaineko politika batua energia hornikuntzaren segurtasunean oinarritu beharko da (besteak beste bermatzen du gure industriaren lehiakortasuna) eta ondorioz, Europako herrien arteko energia mailako solidariotasunean eta hurrengo hauetan ere:**
 - **Apustu sendoa eraginkortasunaren eta energia aurreztearen alde.**
 - **Apustu sendoa teknologia garbiak garatzearen alde eraikuntza eta automozio sektoreetan.**
 - **Berrikuntzaren aldeko apustua energiaren fase guztietan (produkzioa, hornikuntza eta garraio sareak).**
 - **Apustu eraginkorra energia berriztagarrien alde, hori delakoan garapen jasangarri berrirako oinarrizko zutabea.**
- **Administrazio eta gizarte zibilak eginiko ahaleginak bateratzea , eta arreta berezia ematea eguraldiari, bio-aniztasunari, baliabide naturalen kudeaketa jasangarriari eta garraio ekologikoaren garapenari.**

10.-Lehen sektorea

Lisboako Hitzarmena berresten denean, Europar Legebiltzarrak botere zabalagoak izango ditu “ ko-erabakitze prozedura” besteak beste aplikatuko baita nekazaritza eta

arrantza arloetan. Honek suposatuko du Legebiltzarra ere legegilea izango dela kide diren Estatuetak ministroen modura. Gauzak horrela, Batasunaren Nekazal Politikaren eta Batasunaren Arrantza Politikaren legezkotasun demokratikoa indartuko da europar hiritarren aurrean.

Ekainaren 7ko hauteskundeetatik irtengo den Europar Legebiltzarrak aztertu beharko dituen nekazaritza eta arrantza arloetako gai nagusiak

A. NEKAZARITZA

Europar Batzordeak 2009ko bigarren seihilekoan aurkeztuko duen Komunikazioan Batasunak nekazal produktuen kalitatearen inguruko oraingo legeria aldatzeko proposamenak aurkeztuko ditu.

EAJ-PNVren ustetan, Euskadik nekazal eta elikagaien arloan lehiakor izateko duen gaitasunik handienetakoa da bere produktuen kalitatea. Hau, zutabe bitan oinarritzen da: euskal nekazariak produzitzeko metodo egoki eta jasangarrien inguruan egiten dutena eta kalitatezko produkzioak egiteak gure lurraldearekin duen lotura.

EAJ-PNVk kalitatean, produzitzeko metodo tradizional eta jasangarrietan eta erregio guztietako (bereziki mendikoak moduko ahulenak diren erregioen kasuan) aberastasun produktiboaren garapenean oinarritutako europar nekazal sektorearen izaera estrategikoan sakonduko duen Nekazal Politika Bateratuaren alde egingo du.

2014-2020 urteotarako finantza aurreikuspenak zehazteko, kide diren Estatuaren artean aurreikusten den aurrekontu borrokaren ostean, Euro-ganberak NPB aurrekontu zerumuga berrira egokitzeko eta erronka berriei aurre egin ahal izateko erreformatzako prestaketa lanak egin beharko ditu.

Alde batetik, Europar Batasunak NPB erreformatzeko ekimen berriari ekin beharko dio 2009-2014 legegintzaldi honetan, NPB marko honetan hartutako erabakiek amaiera izango baitute 2013 urtean (nekazariari zuzendutako laguntasunak eta merkatuak arautzeko hainbat tresna). Beste alde batetik, oraingo krisialdiaren iraupenak eta Estatuaren finantza egoerak ez du baikortasun handirik ekartzen osoko aurrekontuen barruan nekazaritza eta arrantza arloak etorkizunean izango duten neurriari dagokionez.

EAJ-PNVk defendatzen du nekazaritza etorkizunerako sektore estrategikoa dela. Horregatik, nekazaritzarako ematen den aurrekontua gutxitzeko dagoen joera zuzendu beharra dago.

EAJ-PNVk defendatzen du, nekazariari laguntzeko oraingo eskemaren erreforma egin ezker, eredu orekatuago eta arrazoizkoago baterako bidea hartu behar dela, nekazal jarduera EBko eskualde produktibo guztietan mantentzea ahalbidetuko duena eta funtzio anitzeko familia nekazaritza babestuko duena, hauxe delakoan Europako produkzio errealitateari, europar gizartearen eskariei (segurtasuna eta elikagaien kalitatea, ingurumena babestea, animalien ongizatea, paisaia kudeatzea, nekazal gune biziak mantentzea) eta balio erantsia sortzea eta baliabideen jasangarritasuna uztartzeko Lisboako eta Gotenburgoko helburuei ondoen erantzuten diena.

Europar Batzordeak urte amaiera baino lehenago adostu beharko luke egoera okerrean dauden eskualdeen inguruko Komunikazioa, arlo hauen gaineko “ definizio berria “ ezartzeko, nekazal garapenerako egitasmoan (EBk eta estatu kideek ko-finantziatuak) arreta berezia dutelarik.

EAJ-PNVk defendatuko du euskal nekazal lurraldeak, % 85an mendi-nekazaritza delarik, egoera okerrean dagoen eskualdetzat hartua izaten jarrai dezan eta ondorioz nekazaritza mantentzeko EBk eman ohi dituen diru laguntasunak har ditzan.

B. ARRANTZA

Europar Batzordeak 2009 urtean argitaratuko du Arrantza Politika Bateratuaren erreformaren inguruko Liburu Berdea (APB) eta aldi berean aurkeztuko den kontsulta publikorako oinarria izango da. 2010 urterako Batzordeak Arrantza Politika Bateratu berriaren inguruko lege proposamenak hartuko dituela espero da. Lege hauek indarrean egongo dira 2012 urtean.

APBren hurrengo erreforma baliabideak babesteko politiketan eta ontzidia berregituratzean oinarrituko da batez ere.

Zentzu honetan EAJ-PNVren aldetik defendatzen dugu urteko harrapaketa kopuruaren TAC eta kuota sistema modifikatu beharko litzatekeela arrantza baliabideak kudeatzeko tresna nagusia den aldetik eta ezer baino lehenago lehenetsi beharko lirateke urte anitzekoa dela. Halaber, arrantza arloan hartzen diren neurri guztiek ingurumenean eta arlo sozio-ekonomikoan duten eragina ikusteko azterketa sistematikoak egitea eskatzen dugu, laguntzeko behar besteko neurriak ezar ditzagun eragin kaltegarriak arindu ahal izateko.

Ontzidi ezberdinak arrantza baliabideetara egokitzearen inguruan, EAJ-PNVk defendatuko du arrantzatzeko ahalmena gutxitzearekin egin den sakrifizioa kontuan hartua izan dadin.

Jakin badakigu zenbaterainokoa den Euskadin arrantzaren sektorea ekonomia, gizarte, kultura arloan, eta euskal kostaldeko herri esanguratsuetan. Horregatik uste dugu Arrantza politika bateratua sinplifikatu eta deszentralizatu behar dela, arrain hornikuntza publikoa bermatzen lagun dezan eta era berean ontzidi jasagarria mantendu ahal izateko, gure arrantzaleen egoera hobetuaz eta ondo egiteko prozedurak mantenduaz.

Europar Batzordeak datozen hilabeteotarako proposatu nahi du Bizkaiko Golkoko antxoaren harrapaketarako epe luzerako kudeaketa egitasmoa, arrantza honi egonkortasun handiagoa emango diona.

EAJ-PNVk neurri handiegian ustiatutako baliabideak berreskuratzeko eta aldi berean arrantzaleen sarrerei egonkortasuna emateko neurriak babestuko ditu. Beste alde batetik, antxoaren egoeraren azterketa udaberriko hilabeteetan egiten

dela eta ekainera arte informaziorik ez dagoela kontuan harturik, TAC harrapaketa kopurua uztailan ezarri beharko litzateke eta hurrengo urteko ekainera arte.

EAJ-PNVk honakoa bultzatuko du:

- Estatu azpiko erakundeek izan dezaten beren nekazal politikaren gainean erabakiak hartzeko eskubidea; ondorioz, transgenikorik gabeko eskualde izendatzeko eskubidea izan dezaten.
- Batzordeak irizpide sozio ekonomikoak zehaztea, genetikoki eraldatutako organismoak onartzeko momentuan.
- Batasun mailan mutualitate sistema eratzea, nekazal produktoreen errentak bermatu ahal izateko.
- 2015 urterako esne kuotak kentzeko aukera aztertzea
- Batasun mailan ezar dadin genetikoki eraldatutako pentsuekin elikatu diren animaliekin egindako produktueterako etiketa eredu.
- Batasun mailan, merkataritza zirkuitu laburrak eta tokian tokiko nekazal produktuen kontsumoa ahalbidetzeko tresnak garatzea.
- EBk ikerketa egitasmoak garatzea arrantza arteak hobetzeko eta mehatxu egoeran dauden espezieak berreskuratzeko alorretan.
- Batasun mailan behar besteko neurriak har daitezten Indiko Itsasora migrazio handiko espezieak harrapatzera doazen euskal ontziak ez daitezten piraten erasopean erori.
- Lurralde uretan 12 milarainoko salbuespena behin betiko izan dadin itsasoko ekosistemen jasangarritasuna, arrantza jarduera tradizionalaren eta arrantza erkidegoen biziraupena babeste aldera.

Halaber, europar nekazaritza, eguraldiaren aldaketarako prestatu beharko da eta honetara egokitu. Laboreetan izan daitezkeen ondorioak aurreikusi beharko dira (lehorte handiagoa eta hegoaldean hazkuntza txikiagoak, hondamendi natural gehiago gertatzeko arriskua e.a) eta abeltzaintzan izan daitezkeen arriskuak ere (gaixotasun berriak edo birusak, osasunean eta ekonomian izan ditzaketen ondorioak). Beste alde batetik Kioto osteko erregimenaren gaineko negoziaketan izango da zalantzarik gabe produzitzeko gaurko moduen inguruan hausnarketa egiteko aukera eta hain kutsakorrik ez diren sistemak garatzeko. Errealitate hau gero eta gehiago integratu beharko da nekazal arloan hartuko diren erabakietan.

11.-Inmigrazio Politika

Inmigrazioa da XXI. Mendeko lehen hamarkadan nagusitu den fenomeno eta honen kudeaketa egokia da Europar Batasunean aurrez aurre duen erronkarik handienetakoa. Migrazioaren gaineko politika koordinatu eta gizatiarra garatzea izango da europar legegintzaldi berrirako helbururik nagusienetakoa eta ukaezina. Halaber, kasu honetan, hainbat gairen inguruan gertatzen den moduan, Lisboako Hitzarmena indarrean jartzen denean Europar Legebiltzarrak legeak egiteko osoko ahalmena izango du.

Eratuko den hurrengo Europar Legebiltzarrak legez kanpoko inmigratioak eragindako tragediekin amaitzeko erronka eta aukera izango du. **Legez kanpoko inmigratioaren kontrako borroka** izan beharko litzateke Batasunaren migrazioen gaineko politika

koordinatuaren lehen helburua. Dena dela, **legezko inmigrazio politika egokia** bultzatzea, txanpon beraren beste aldea ere bada.

Migrazio mugimenduei bidea eman beharko lieken legezko inmigrazio politika honek ez du bat-batekoa izan behar. Migrazio fluxuak lan indarra behar den tokietara zuzentzea **ahalbidetuko duen planifikazio egokiaren ondorio** izan beharko litzateke. Politika hauek diskriminazioak ekidin beharko lituzkete eta era berean erantzuna eman aldiko langileek eta ahultasun eta babesik gabeko egoeran dauden taldeek jaso beharko luketen tratua gaineko galderei .

Halaber, etorkinekiko lankidetzaren ere eman beharko da ko-garapenerako ekimenen bidez. Ondorioz, migrazioa onurak ekarriko dituen faktorea izango da etorkinentzako eta harrera lurraldeetarako. Era berean ekidin ahal izango dira diskriminazio egoerak.

Elkar onartzea eta ezberdinen arteko ulermena izan beharko litzateke etorkizunerako bizikidetzarako oinarriak. Horretarako, berariazko politika publikoak ahalbidetuko dira kultura ezberdinen arteko bizikidetzaren eta eman dadin eta ezberdinen arteko elkarrizketa sustatzeko. Etorkinak gure kulturaren integrazioa izango da integrazioarako lehen mailako elementua.

Dena dela, ez genuke ahaztu behar migrazio mugimendu hauen barruan ere gertatzen dela gure **inguruko burmuinak beste herrialdeetara alde egitea**. Europarrak garen aldetik arazo hauei erantzuna emateko dugun gaitasunaren araberakoa da Lisboako Estrategiaren helburuen betepen maila ere, hau da, kalitate handiko lanpostuak sortzea.

Lehenetsi beharrekoa da ere **babeserako sistema eraginkor eta solidarioa**. Milaka pertsonen asilo eskatzaile gisa bizi duten ziurgabetasun eta desoreka egoerarekin amaitzea izan beharko litzateke Europar Batasunak eman beharreko lehen urratsa, politika koordinatua sor dezagun eta ardurak Batasuneko Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen artean modu egoki eta orekatuan banatu daitezkeen; beti ere kohesio eta solidariotasun kontzeptuak kontuan hartuta..

Zentzu honetan, Europar Legebiltzarrak *asiloaren inguruko egitasmo multzoa* garatzeko ardura izango du. Tresna honen barruan, besteak beste aurreikusten da asilo egoerak arinago ebazteko tresneria.

Era berean, 2005 urtetik aurrera isilpeko inmigrazioaren kontra borrokatzeko eratu diren **FRONTEX moduko erakundeentzako** baliabide eta material propioak izatearen gaineko politikaren alde egingo dugu, gai honen inguruan Estatu arteko ulermena handiagoa zein txikiagoa izanda ere. Azken finean, atzera egiterik ez duen solidariotasun sisteman oinarritutako funtzionamenduaren alde egiten dugu.

12.-Kultura, eleaniztasuna,euskara eta gazteria

A. Kultura

Europar Batasunaren kultur politikak interes handiko hainbat egitasmo eta ekimen ditu, baina ekimen ikusgarriagoak garatu behar dira eta agerian utz dezaten eta **balioa eman diezaioten Europar Batasunaren barruan dagoen kultur aniztasunari.**

Halaber, EBk antolatutako egitasmo kulturalen emaitzak zabaltzeko ekimenak Bruselan ez ezik, tokian tokiko mailetan ere garatu beharko dira, hau da, hiritarrendik hurbil; horrela indar dezagun hiritarrak egitasmo batuan dagoelako sentimendua.

Hainbat ekimenen barruan, EAJ-PNVren ustez, honakoa **bultzatu eta sendotu beharko litzateke:**

- **Sorkuntza industriak.**
- **Etorkizuneko belaunaldiengan sortaraztea sorkuntza eta ekimenaren inguruko sentsibilizazioa.**
- **Artisten eta kultura barruko beste profesionalen mugikortasuna.**
- **Gizarteak kultura jasotzeko aukerak.**
- **Bildumen mugikortasuna.**

B. Eleaniztasuna eta Euskara EBn:

Europar Batasunak hogeita bi hizkuntza ofizial ditu bere barruan, gaelikoa barne. Estatu kideetako hizkuntza gutxituek ez dute onarpen hau jasotzen Europar Batasunaren barruan. Hori dela eta, 2004 urtean Ekialdeko herrialdeak Batasunean sartu zirenetik, euskara edo catalá hizkuntzek baino hiztun kopuru txikiagoa duten hizkuntza batzuk ofizialak dira, malta eta Txipreko hizkuntzak kasu. Hizkuntza ofizialak direnez agiri ofizialen bertsioak egiten dira eta erabilpena baimenduta dago eta balio juridikoa du Batasunaren instituzio ezberdinetan, bai osoko bilkuretan bai batzordeetan. Eta berean, hiritarrei ere ematen zaie hizkuntza horietan Batasunarekin harremanak izateko eskubidea eta eskubidea dute beren hizkuntza propioak erantzuna jasotzera.

Euskarak ez du ofizialtasun estatusik. Dena dela, 2005 urtetik aurrera euskararen erabilpen mugatua ahalbidetu zen Europar Batasuneko instituzioen barruan. Baimen hau honakoetan gauzatzen da:

- Euskal hiritarrek idatzitako komunikazioak;
- Euskal ordezkariak osoko bilkuretan hitz egitea;
- Ko-erabakian (Europara Legebiltzarra eta Kontseilua elkarrekin) hartutako arauak euskaratzea

Dena dela, neurri hauen aplikazioak aurreko akordio administratiboa behar du Estatuak eta europar instituzio bakoitzaren artean, itzultzeko lanak eta kosteak euskal instituzioek bereganatzen dituzte, ko-erabakian hartutako arauen euskarazko bertsioak ez du balio juridikorik; eta gainera, EBko instituzio eta organoek ez dute euskarara edo euskaratik egindako itzulpenen gaineko ardurarik hartzen.

Zoritzarrez, euskal legebiltzarkideek gaur egun ez dute euskaraz hitz egiteko eskubiderik ez osoko bilkuretan ezta Europar Legebiltzarreko batzordeetan ere.

Sistema honek 2005 urtea baino lehenagoko egoerarekin alderatuta aurrera emandako pausu apala dela onartzen dugun arren, **EAJ-PNVk uste du hau ez dela nahikoa, EBko hizkuntza ofiziala ez delarik, arazo handiak sortzen direlarik**, hau da:

- Euskara erabiltzeko erabakia hartu duten hiritarrek epe eta prozedura luzeagoak jasan behar dituzte...
- Osoko bilkuretan euskara erabiltzeko aukera izateko, alde zuzenetik eskatu behar da eta behar besteko baliabideak egon behar dira .
- Ko-erabakian egindako legeria baino ezin da itzuli.

Euskarazko bertsioaren balio juridikorik ezak arazoak sortzen ditu segurtasun juridikoari dagokionez, EBren Zuzenbidearen eragin zuzena, euskara Euskadiko hizkuntz propio eta ofiziala den aldetik.

Europar Legebiltzarrek “ *Eleaniztasuna: abantaila Europarentzat eta partekatutako konpromisoa* “ izenburuko txostena onartu berri du. Esandako txosten hau ez da juridikoki loteslea baina hizkuntza ko-ofizialen balioa defendatzen du.

EAJ-PNVk ondo baloratzen ditu 2005 urtetik aurrera eman izan diren urrats apalak, baina honako hau defendatuko du:

- **Euskara onartua izan dadin EBko hizkuntza ofizial gisa, gainerako hizkuntza ofizialen maila berean.**
- **Ko- erabakian hartutako arauen euskarazko bertsioa ager dadin EBko Zuzenbide web gunean (Eur Lex sistema).**
- **Estatuko Administrazioari dagokionez, itzulpenak eragindako gatuak Estatuko Gobernuak beregana ditzan.**

Bereziki, **EAJ-PNVk eskatuko du euskara erabiltzeko eskubidea Europar Legebiltzarreko osoko bilkuretan**, Erregioen Batzordearen Osoko Bilkuretan gertatzen den moduan. Era berean, **onartua izan dadin hiritarrentzat Europar Epaimahaiarengana euskaraz zuzentzeko eskubidea** (eskatzeko eskubidea)

Azkenik, **EAJ-PNVk Donostia hiria 2016 urteko hiriburu kulturala izateko hautagaitza defendatuko du europar foro guztietan.**

D. Gazteria

Krisi egoera honetan gazteek aurrez aurre dituzten arazo larriak direla eta, are garrantzitsuago egiten dute langabeziaren eta eskola uztearen kontra hartu beharreko neurriak, eta horiekin batera gazteen heziketa eta prestakuntzaren eta lan eta etxebizitza duinaren alde hartu beharreko neurriak ere. Era berean, erabakiak hartzeko prozesu demokratikoan parte hartzea sustatu beharko da.

Europar Legebiltzarrerako hauteskundeetan lehen aldiz botoa emango duten 18 urteko gazteak dira *blokeen* Europa bizi ez duten lehen belaunaldikoak dira (Berlin hiriko harresia 1989 urtean bota zenetik). Horrela ba, belaunaldi honek inplikazio, interes eta parte hartze handiagoa izan beharko luke Europar Legebiltzarrerako hauteskundeetan, eta benetako inplikazioa behar da tokian tokiko eta erregio mailako erabakiak hartzeko prozesuetan, baina era berean EBko instituzioen barruan. Gazte hauek dira politikoki Maastricht osteko Europar Batasunaren benetako ondorioa; beraz, benetan esanguratsua da beren parte hartzea hauteskundeetan eta etorkizuneko Europar Batasunaren eraikuntzarekiko konpromisoa.

Horretarako, bestelako ekimenen artean, EAJ-PNVk honakoa defendatuko du

- **Erabakiak hartzeko eta parte hartzeko prozesuetan gazteria inplikatzeke ekimenak aplikatzea eta praktikan jartzea. Gazteek beren ahots propioa izan dezaten eta ez daitezen unean uneko protagonistak izan. Aipagarria da European Youth Forum (EYF) erakundeak 2009ko Europar Legebiltzarrerako hauteskundeetan gazteen parte hartzea bultzatzeko Get-Out-the-vote ekimena (www.youthvotes.eu) .**
- **Erabakiak hartzeko eta parte hartzeko prozesuetan gazteriarentzako guneak/ekimenak sendotzea**
- **Gazteriaren inguruko Europar Hitzarmenaren aplikazioan aurrera egitea, helburu kualifikatuak eta adierazgarriak ezarri.**
- **Gazteen esku jartzea aldaketari aurre egiteko tresneria (eskolatik eta hezkuntza sistematik lan arlora edo langabeziatik lanera)**
- **Prestakuntza informala garrantzitsua izan daiteke gazteen integrazioan.**
- **Gazteriaren dimentsioaren *transbertsalitate* kontzeptua bermatzea eta indartzea (lana, osasuna, hezkuntza, etxebizitza e.a) Tokian tokiko eta Erregio mailako erakundeak , gazte erakundeak eta Estatuak inplikatzea.**
- **Gazteen artean boluntariora indartzen jarraitzea.**

13.-Hezkuntza, Industria eta Berrikuntza

Hezkuntza, unibertsitatea, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren aldeko apustua garapen jasangarriko markoan funtzezkoa da etorkizunari epe ertain eta laburrera aurre egin diezaiozun. Garapen jasandarra da hazkunde ekonomikoarekin batera, gizarte kohesioa eta oreka ekologikoa uztartzea.

A. Hezkuntza

Europar esparru bakarra ezartzeak suposatzen du europar inguruko kulturak ezagutu behar direla, eta era berean, gainerako herrialdeen esperientziak ezagutu behar dira. Argi dago gizarte baten etorkizuna , bere kideek hartzen duten heziketaren arabera izango dela, batez ere gazteek hartuko duten heziketaren arabera. EAJ-PNVren aldetik jakin badakigu zein garrantzitsua den **baloreetan oinarritutako eta Europako kultura ezberdinak bateratuko dituen heziketa maila altua izatea.** Zentzu honetan,

sustatu behar dira Kontinente barruan europar biztanleen mugikortasuna bultzatzen duten politikak

Testuinguru honetan , pozik gaude ikasleen mugikortasunaren alde egin diren aurrera pausuengatik. 2012 urtetik aurrera, heziketa maila ezberdinenetan eman ahal izango dira kalifikazio parekatzeak. Era berean, baikor jotzen dugu Erasmus moduko egitasmoek eragindakoa. Ikasle-trukea ahalbidetzen du eta ondorioz interkulturalitate handiagoa eragiten du, elkarren arteko ezagutza handiagoa eta hobe eta ondorioz, Europa sendoagoa ere eragiten du. Heziketa adin goiztiarrean garrantzitsua bada ere, Europak etengabeko prestakuntzan egongo den gizartea behar du lehiakorra izan nahi badu. Horrela ba, EAJ-PNVren ustez **etengabeko hezkuntza** funtsezko tresna da Lisboako Estrategiak aldarrikatzen duena moduko ekonomia lehiakorra izan dezagun eta etorkizunean gizartean izango dituen erronkei aurre egin ahal izateko (zahartzea eta gaitasun berriak) eta hazkuntza eta enplegu maila handia lortzeko.

EAJ-PNVk honakoa defendatzen du:

- **Erasmus egitasmoa Unibertsitate guztietan ezartzeko derrigorrekin batera , europar fondoek handitzea eman beharko litzateke.**
- **Atzerriko hizkuntzen ikaste goiztiararen aldeko neurriak bultzatzea.**
- **Bolonia prozesua ondo aprobetxatua izan beharko litzateke EBren Lisboa osteko osoko estrategia hezkuntzaren ikuspuntutik bultzatzeko. Goi mailako heziketaren modernizazioak goi mailako hezkuntza, ikerkuntza zientifikoa eta berrikuntzaren arteko trukea bermatu beharko du datozen urteotan.**
- **Hiritargoaren mugikortasuna unibertsitateetatik eta Ikasketetan (Bolonia) eta lanbide heziketarako (Copenhagen) homologatutako tituluetatik harago joan beharko litzateke . Trukatze egitasmoak garatu beharko litzateke funtzionarioen artean, enpresetan, sindikatu mailan...**
- **Europar gizarte hezkuntza sustatzea Estatu kide guztien barruan, europar hiritartasun kontzeptua umetan bereganatua izan dadin, eta europar baloreen barruan gaudela senti dezagun.**

B. Industria eta Berrikuntza

Europar Batasunak egiturako lau erronka identifikatuko ditu, datozen urteotako egutegia markatuko dutenak: globalizazioa, demografiaren aldaketa, eguraldiaren aldaketa eta energia.

Bikaintasunezko hezkuntza mailak, produktibotasun maila altuagoa, berrikuntzak eta lan tasa altuak beharrezko elementuak dira lehiakorrak izateko eta esandako erronkei aurre egiteko aukerak izateko.

“ Ezagutzan oinarritutako munduko ekonomiari dinamiko eta lehiakorrena erdiesteia ” esaldiarekin ezarritako Lisboako 2000 egutegia ez da hasierako helburuetara iritzi, zati handi batean, prozesuaren intergobernagarritasunagatik eta Estatuak denon helburuak lortzeko konpromiso loteslerik ez dutelako.

Berpizkunde ekonomikoa aukeratzat jo behar dugu industria zikinetik karbono jaulkipen baxuak dituen ekonomia jasangarrirako jauzia eman dezagun. Sektore industrial berria garatu beharko da energia berriztagarrien markoan lehia dadin. Honek lanpostu berrietarako aukerak sortuko ditu, produktuei lotutako berrikuntzak esportazio ahalmena handitzen duelako.

EAJ-PNVk honakoa defendatuko du:

- **Langabeziaren aurka egiteko Europa mailako egitasmo bateratua ezartzea eta Europak ematen dituen baliabideak handitzea , Estatuak aurreikusituzten egitasmoen osagarri izango den plana garatzeko.**
- **Europa mailako merkatal politika boteretsua, 2010 urte osteko Lisboako estrategia berriturako strategiaren alde egingo duena, hazkunde jasangarriaren eta enplegua sortzearen aldeko apustua egin dezan, ezagupen eta teknologia maila altuetan oinarritzen diren gure enpresen nazioarte mailako lehiakortasuna sendotzeko.**
- **I+G+B esparruan europar politika koordinatua eratzen joatea, politika hauetarako esleitutako baliabideen arteko sinergiak sor daitezen eta estatuaren zatiketak kalterik eragin ez dezan bere erabilpen zuzenean.**
- **Etorkizunerako sektore indartsuei, “ industria berdeei ” energia merkatuei lotutako tokian tokiko eta Europa mailako klusterrak eratzea.**
- **Maila anitzeko gobernatze ereduaren markoan, europar politikak egikaritzen dituzten erregio eta toki administrazioen arteko inplikatzeko eta elkartze lotuagoa.**

14.-Europa Soziala

Ikuspuntu sozialak ez diren lehentasunezkoak Europaren integratzearen prozesuaren hasieran. Izan ere, hasierako helburua zen Estatu kide guztien garapen ekonomikoa lortzea, europar mailako eskala ekonomia sortzearen bidez eta horrela europar guztien ongizaterako lagungarri gerta zedin. Baliabide produktibo hauen birbanaketak gizarte harmonizazio automatikora eramango gintuzke: aurrerapenaren bidezko berdintze soziala zen beraz.

Baina, hirurogeita hamargarren hamarkadan, Estatuak Gizarte Ekintzarako Egitasmoan (1986) amaitu zuten ekimenak jarri zituzten martxan eta geroago egin zen Europar Akta Soziala (1986) barne merkatuak gizarte esparruan neurriak hartzea eskatzen zuela onartzeko. 1989 urtean ere (hamaika estatu, denak Erresuma Batua izan ezin) langileen eskubide sozialen Eskutitz batua onartu zuten. Europar Akta Sozialak bete beharreko helburu izendatu zuen kohesio ekonomiko eta soziala eta batasuneko politika guztiak ukitu zituen baina ez duen gutxieneko zehaztapenik izan Maastricht (maila altuko lan eta babes soziala lortzeko helburua) eta Amsterdamgoa iritsi arte; azken tratatu honek barnean hartu zituen Akordio Sozialaren xedapenak eta lanaren gaineko titulua erantsi zuen .

XXI. mendeko lehen hamarkadan Europar Konbentzioarekin hasitako prozesua eta Konstituzio Hitzarmenarekin eta honen ondorengoa izan zen Lisboako Hitzarmenarekin jarraitutako prozesuek islatu dute hiritargoak oraingoa baino **Europa sozialagoa** behar duela eta oraindik ez zaio behar den moduko erantzunik eman.

Dena dela, bidezkoa da onartzea Lisboako Hitzarmenean antzematen dela europar integrazio prozesuaren dimentsio sozialean sakontzeko borondate argia. Helburu sozialak lotzen dira barne merkatua erdiesteko helburuari: barne merkatua ezartzearekin batera doaz izaera sozialeko helburuak. Garapen ekonomiko eta sozialaren arteko loturak koherentzia handiagoa bermatu behar du ekonomia eta gizarte arloko politiken artean. Dena dela, honek ez du esan nahi Estatu kideek Europar Batasunari emango diotenik gai inguruko eskumen legegile edo finantza eskumenik. Errealitateak erakusten du ezin dela Europarako eredu sozial bakarraz hitz egin, baina bai direla partekatutako oinarritzko baloreak, hau da, merkatuko ekonomia sozialaren aldeotasuna, europarrek botere publikoetan duten konfiantza eta gizarte elkarrizketarako dagoen kultura, hau forma ezberdinetan ematen den arren.

Inguruabar hauen arabera, **EAJ-PNVk genero arteko berdinketa , kalitatezko lanak sustatzea eta gizarte bazterketa ezabatzea defendatuko du, hezkuntza eta prestakuntzaren goi maila (etengabeko prestakuntza barne) oinarria delarik ongizate maila handiko gizarte nahi badugu eta honek zentzuzko egingo du europar merkatu bakarra egitea.**

EAJk merkatu bakarraren garapenari lotutako eta mugaz gaindiko eragin ikusgarriak eta hiritargoarengan eragina izango duen benetako gizarte politikaren alde egingo du.

Gizarte politikaren eskumena Batasuna eta Estatu kideen artean partekatzen den eskumen esparrua delarik, **EAJ-PNVk subsidiariorotasun printzipioa aplikatzea defendatuko du gizarte politikaren garapenean, hiritarren interesak defendatuak izan daitezen hurbileko instituzioetan baina behar besteko koordinazioa bermatuz euskal eta europar instituzioen artean; horrela ba, enplegu, lan baldintzak eta aseguru soziala hartzen dituen estrategien alde egingo dugu. Azken finean, EAJ-PNVren lehentasuna izango da hiritarrari ongizate maila handiagoa emango dion oro.**

Era berean, **EAJ-PNVk eragile sozialen egitekoa bultzatuko du** Batasunaren politika sozialak garatzeko orduan, baina baita Batasunaren bizitza demokratikoan ere.

Azken finean, **EAJ-PNVk Tratatuak eskaintzen dituzten aukeretan oinarrituta (bereiziki Lisboako Hitzarmena) defendatuko du europar instituzioek europar legeriaren bidez osa dezatela Estatuak beren hiritarrei lan arloan, bizitza eta lan egiteko baldintzak hobetzearen inguruan eta abarretan ematen dieten babes soziala.**

15.-Subsidiariorotasuna

Federalismoaren oinarrian dagoen subsidiariotasun printzipioa da europar egitasmoaren hasieran dagoena. Konstituzio Tratatu eta Lisboako Hitzarmenean ezartzen den eguneratzearen helburua da Europar Batasunari sendotasun handiagoa ematea sakontze demokratikoaren, gardentasunaren eta hiritarrarengandiko hurbiltasunaren bidez eta elementu instituzional ezberdinak era egokian artikulatuz, ekimen publikoa era eraginkorrean eta hiritarrarengandik hurbil egikaritua izan dadin, beti ere, arautu beharreko gaiaren arabera. Azken emaitza izan beharko litzateke zerbitzu eraginkorrago, merkeago eta gardenagoa. Honek guztiak eragingo luke hiritargoak hobeto ulertzea eta onartzea europar egitasmo bera.

Subsidiariotasuna da erabakiak hartzeko ekimena erarik eraginkorrenenean egitea eta hiritarrarengandik ahalik eta hurbilen izatea. Ezer baino lehenago da norik berek bere baliabide propioen bidez egin ahal duena ez diezaiola inork kendu eta beste eskalan ez dadin egin.

Subsidiariotasuna Europar Erkidegoetan dago hasiera hasieratik, sortu zeneko oinarrian bertan dago. Batasunaren Sortzaileek ezarri zuten Estatu kideek bilatzen dituzten helburuak (tratatuaren bidez ezarriak izan direnak) eta indibidualki betetzea ezinezko dituztenak, estatuz gaindiko erakundeak garatuko dituela. Horixe da subsidiariotasun printzipioa.

Batasunaren lehen urteetan, subsidiariotasun printzipioak eta eskumen banaketa izan zen printzipio honen ondorioak arazo eskasak sortu zituzten Estatu kideen artean. Metodo funtzionalistan oinarritutako europar integrazioak ere ez zuen arazo handirik sortarazi, erabakiak aho batez hartzen zirelako, eta beraz Estatu kide guztiek zuten beren subiranotasuna mugatuko zuen erabakiari betoa jartzeko eskubidea. Europar Akta Bakarraren ostean hitz egin daiteke izaera politikoko Europar Batasunaz, instituzionalizatu egin zirelako besteak beste ingurumena, erregioen gaineko politika eta ikerkuntza, hau da hirurogeita hamargarren hamarkadan sortu ziren politikak. Izan ere, subsidiariotasun printzipioaz egiten den berariazko lehen aipamena ingurumenaren gaineko politikaren ingurukoa izan zen Europar Akta Bakarrean. Profil politiko hau sendotu zen Maastricht eta Amsterdamen egin ziren erreformen bidez eta printzipioak protagonismoa irabazi zuen eztabaida politikoa ere.

Baina arriskurik badago, subsidiariotasun printzipioaren aplikazioak eragin dezakeelako Europar Batasunaren renazionalizazio prozesua. Beraz, komenigarria izango da adi egotea, Lisboako Hitzarmenarekin edo horren faltan, horretarako aurreikusi den protokoloaren aplikazioa hasten denerako. Beraz, zaindu beharko da ez daitezen nahastu printzipioaren gaineko kontrola eta legebiltzarkide guztiak erakar ditzakeen aukera eta tentaldi irizpideak.

Maastrichteko Tratatuak subsidiariotasun printzipioa berariaz onartzeak, berarekin dakar Europar Batasunaren eta Estatu kideen arteko harreman sistema berria martxan jartzea. Honi esker, azken hauek batasuneko instituzioen boterea kontrolatzeko ahalmen garrantzitsua garatzen hasiko dira.

Baina, aldi berean, funtsezko tresna da Estatu kideen Legebiltzar ezberdinen inplikazio eta konpromisorako (esparru zentrolean eta periferikoan) batasunaren prozesu legegilearen -jarraipen sistematikoa ahalbidetzen duelako. Aldi berean, hiritarrek egiazta dezakete batasuneko instituzioen jardura printzipio honen aplikazioaren

arabera produzitzen dela soilik hurbileko instituzioa eznahiko edo ezgai agertzen denean gero eta elkarren menpeko eta gero eta globalizatuagoa den mundu bateko beharrezanez erantzuteko. Ez dago zalantzarik, printzipio honen erabilpen egokiak lagundu egingo duela hiritargoak europar eraikuntzarekin identifika dadin .

Aipagarria da , Lisboako Hitzarmenean gauzatu diren azken berrikusketek zentralak ez diren Legebiltzarrei ematen dietela- Eusko Legebiltzarra kasu, printzipio honen aplikazioaren kontrolerako parte hartze aktiborako gaitasuna, eta hau gertatzen da dagokion Estatu kidearen estatu botoaren barruan egotearen bidez; honek suposatzen du batasunaren legegintza markoaren hobekuntza mamitsua eta aurrera emandako urratsa erregioek edo Estaturik gabeko nazioek europar eraikuntzan jokatu beharreko egitekoari dagokionez. Eskumen legegileak dituzten nazioak edo erregioak (Euskadiren kasua esaterako) gutxi gora behera batasunaren legeri osoaren % 90ren aplikazio edo transposizioaren arduradunak direla kontuan harturik, uler dezakegu dimentsio ez zentralaren artikulazio egokiak subsidiarotasun printzipioaren aplikazioan izan dezakeen garrantzia.

Espaniar Estatuak, beste behin ere, Eusko Legebiltzarren (edo bestelako ganbera autonomikoen) ebazpenen bidez emandako iritziak isildu eta garrantzi gabeko tokian utzi nahi ditu , Europak ematen dituen aukerei kasu egin gabe eta nazio bakarra nagusitzen duen ideia zentralistan sakondu nahi du europar erakundeetako parte hartze gaietan ere, jarrera hori da bere nazionalismo baztertzailaren erakusle. Jarduteko ildo hau Alemania, Austria edo Belgika moduko Estatu deszentralizatuek hartutakoaren kontrakoa da. Herrialde hauek behar besteko tresneriak dituzte beren estatu barruko talde politiko deszentralizatuek parte hartze aktiboa izan dezaten etorkizuneko Europaren osaketan eta Batasunak denon eskura jartzen dituen baliabideen bidez. Beste behin ere, eta hau ez da azken aldia izango, erakutsi egiten da **Europa arazoa baino konponbidea dela eta Euskadiri Europaren gobernuan jartzen zaizkion oztupoak Bruselatik baino, Madriletik datozela.**

EAJ-PNVk subsidiarotasun printzipioaren aplikazio deszentralizatu defendatuko du, Eusko Legebiltzarren bidez ordezkatuak diren euskal hiritarrek parte hartze aktiboa izan dezaten XXI. Mendeko Europaren eraikuntza politikoan. Honetan, instituzio ez zentralen eta europar hiritargoaren parte hartzea bazter ezinak dira Batasunaren legezatasun demokratikoa bilatzeko orduan.

16.-Demokrazia parte hartzailea

Lisboako Hitzarmenaren arabera, Batasunaren funtzionamendua demokrazia ordezkatzailan oinarritzen da. Eta, hiritarrak zuzen zuzenean daude ordezkatuak Europar Legebiltzarrean eta Estatuak Kontseiluak berak ordezkatzeko dituzte.

Demokrazia parte hartzailea gero eta ikusgarriago egiten da demokrazia ordezkatzailaren mugak agerikoak direnean. Zalantzarik gabe, Europaren eraikuntza eredu bitxia eta berezia da mundu mailan eta sarri askotan arazoizkoak izan daitezke ordezkari demokratikorik eza egotzen dioten argudio eta kritikak, nahiz eta bere berrogeita hamar urteotan hiritarren aldeko lorpen handiak izan diren arren.

Batasunaren defizit demokratikoa , prozesu demokratikoa bera despolitizaziora eraman duten joerekin erlazionatuta dago; honetan, europar zutabe konstituzionala ez doa hiritarrek suposatuko luketen zutabearen laguntasunari lotua.

Zalantzatan dagoena ez da Europa politikoa, Europa mailako ordezkari politika baliagarritasuna baizik. **Gobernatze era berria dago, XXI. mendeko gizarteari hobeto egokitua.** Harremanetarako eredu hierarkiakoetan baino, heterarkikoetan oinarritzen da neurri handiago batean. Hau ekidin ezinezko baldintza da erronka berriei erantzuna emateko gaitasuna izango duen baina hiritargoarengandik banatzen duen arrakala arintzeko legezkoasun demokratiko handia behar duen Europa osatzeko orduan.

Europar Batasunean, ordezkari eta parte hartze demokratikorako sistema eraginkorra artikulatzea bereziki konplexua da ez dagoelako Europar Demos izenarekin deitu ahal duguna, eta bestetik bere lurraldea handitu da Batasuna zabaltzeko prozesuen ondorioz.

Dena dela, **EAJ-PNVren barruan uste dugu demokrazia parte hartzailearen berrindartzea ez dela hartu behar demokrazia ordezkariaren kontra dagoen zerbait bailitzan. Gizarte zibilaren bidez parte hartze demokratikorako bide berriak bilatzea demokrazia ordezkariaren sistemarako osagarria izan beharko litzateke sistema demokratikoaren beraren legezkoasuna bilatzeko orduan.**

Horregatik, **EAJ-PNVren aldetik** ,europar hiritargoaren ordezkari ganbara den neurrian, **Europar Legebiltzarraren egitekoa berrindartzen jarraitzearen alde egingo dugu**, 1979 urtean hasi zen bideari jarraiki. **Aurrera pausuak** , batez ere **Lisboako erreformaren bidez**, eman diren arren , gure ustez funtsezkoa da **azkeneraino heltzea Europar legebiltzarrari eskumenak emateko orduan eta aldi berean Kontseiluaren botereak mugatzea proposatzen dugu Estatuak gai batzuen inguruan duten beto eskubidea ezabatuz.**

Aldi berean, **Lisboako Hitzarmenak demokrazia partehartzaileerako eskaintzen dituen tresnen osoko erabilpena eta hobekuntzaren alde egiten dugu**, besteak beste hiritarren ekimen legegilea eta Europar Batzordeak eragile zibilekiko etengabeko elkarriketa.

EAJ-PNVk gizarte zibil antolatua osatzen duten guztien parte hartzearen alde egiten du; kasuen arabera maila orokorrekoa edo sektoriala izan daitekeen elkarriketaren alde eta ez dadin instituzio, ugazaba eta sindikatuen arteko betiko elkarriketa soziala izan.

EAJ-PNVk aldarrikatu nahi du elkarriketa honetan parte hartuko duten erakunde zibilek – gizarte eragileak, baliabide ekonomikoak, gobernu kanpoko erakundeak, esparru akademikoak- **era egonkorrean antolatuak izan daitezen, europar gizartearenak izango diren interesak ordezkatu ditzaten, beren kideen aurrean arduratsu joka dezaten, independenteak izan daitezen eta gardentasun printzipioaren arabera jardun dezaten.**

EAJ-PNVk Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren esperientzia elkarriketa zibilerako foro egonkor eta egituratu gisa gainditzea defendatzen du ; onartzen dugularik izan duen egitekoa, Europar Erkidegoen sisteman demokrazia parte hartzailearen elementu organikorik adierazgarriena izan den aldetik.

17.-Europa: Baloredun erkidegoa.

Berlingo Harresia erori eta bloke sistema desagertu zenetik, Europak kontinentea batzeko izan den gogoari erantzuteko derrigorra ikusi du eta horrela mende bateko banaketari amaiera emanez; egoera horretan, agerian geratu da hasieran planteatu zen arazoa, hau da, Europak edo Europar Batasunak muga geografikorik izan behar ote duen eta hala bada, zeintzuk izan beharko lirakeen. Azken finean, kontua da jakitea zer den Europa guretzat eta zehatzago esanda zer den guretzat Europar Batasuna. Europar Batasunak zerk definitzen duen eta ondorioz nork parte hartu ahal duen eta nork ez Europar Komunitatean edo Europar Batasunean.

EAJ-PNVrentzat, **Europa kontinente geografikoa baino harago doan zerbait da**, balore komunitatea da. Europar Batasuna ezin du zehaztu esparru geografiko hutsak, arraza batek, kultura batek edo erlijio zehatz batek. Aniztasuna da hain zuzen Batasuna zehazten duena, **funtsezko baloreen inguruko adostasunarekin batera** .

EAJ-PNVrentzat, Askatasuna, Giza Eskubideen errespetua, Justizia eta azken finean , **balore demokratikoak dira XXI. Mendeko Europa eusten duten oinarria osatzen dutenak**. Aldi berean, balore hauek soilik garatu ahal izango dira Europar Erkidegoari lotua den aniztasunetik abiatuta, aniztasun hau ematen baita esparru kulturean, hizkuntzan,erlijioan eta sexuan.

Aniztasunean oinarritutako europar gizarteak **Justizia eta Solidariotasuna** izan behar ditu gogoan eta aldi berean konpromisoa mantendu behar du **Jasangarritasunarekin, Ingurumenarekin eta osasunaren babesarekin**.

Azken finean EAJ-PNVk demokraziaren baloreetan oinarritutako Europaren aldeko apustua egiten du; askatasunarekin eta Giza Eskubideekiko errespetu zorrotzarekin irmoki konprometitua eta era berean norbanakoaren eta taldearen justizia kontzeptuarekin konpromisoa hartuta.

Halaber, EAJ-PNVk **Gizakiaren Garapen Jasangarriaren alde duen konpromisoa bikoiztuko du, Europar Batasunak bultzatuko dituen politika guztietan egon beharko litzatekeena**.

Bakea finkatzea, sortzaile izan zirenen hasierako helburu hura, egunero bilatu behar den helburua da eta EAJ-PNVk **Batasunaren barne eta kanpoko ikuspuntu bikoiztetik** begiratzen duen konpromisoa da.

Halaber, **Lan egiteko eskubidearen alde egiten dugu eta horrekin batera Gizarte Justiziaren eta Solidariotasunaren alde, ondo integratutako eta lotutako gizarte europarraren ardatzak direlarik eta balore hauek barrura begira eta kanpoko**

herrialdeekin mantentzen duen harremanetan ere islatzen dituela.

Halaber, EAJ-PNVk **Herri eta Nazio historikoek Europar Batasunean artikulazio instituzionala izateko duten Eskubidearekiko konpromisoa berretsi nahi du.** Herri historikoak eta Estaturik gabeko Nazioak, hiritarrek beren nortasun propioa europar demosa sortzearekin batera eta guztiz bateragarri garatzen duten esparru naturalak dira. Maila anitzeko gobernatze kontzeptuak planteatzen dituen aukerak, hau da, Batasunekoak baina Nazio Estatuak ez diren izate politikoez tokia izango duten horiek aztertuak izan beharko dira eta garatuak XXI. Mendeko erronkei aurre egiteko erantzun eraginkorrek eskatzen dituen hiritargoaren alde. *Think global, act local* aforismo honek denon parte hartzea eskatzen du erlazio hierarkiakoak desegingo diren eta sarean, teknologia berrien garapenari esker eta eragile berriei esker biderkatzen diren erlazio heterarkikoak sortuko diren mundu honetan.

18.- Europar Batasuna: bakerako eszenatokia

Euskadin ematen da Europa osoan azken bortxakeria politikoa. Europar Batasunak lagundu ahal du eta lagundu behar du egoera hau pairatzen ea gainditzen. Bereziki esanguratsua izan da Ipar Irlandaren kasua, batasuneko instituzioek laguntasuna eman zieten alde biei, topaketarako puntuak aurki zituzten eta bakerako eta adiskidetzarako bideak bermatzeko ekimenak finantzatu zituzten. Ipar Irlandan bakea erdiestea izan da europar integrazioak erdietsi duen lorpenik handienetakoa eta gutxien ezagutua. 1993ko abenduko 20an Europar Kontseiluak adierazi zuenez “*Ipar Irlandako gatazka latza amaitzeko onura handiak ekarriko lizkieke erregioari, eraginpean dauden Estatu Kideei eta Europar Batasunari ere*”. Horrela ba, Batasunaren interes orokorra ere tartean dago gure herri honek sufritzen duen bortxakeria terrorista amaitzeko orduan.

PEACE II (Ipar Irlandako, muga erregioeko eta Irlandako Baketze eta Adiskidetzarako EBren egitasmoa) izenekoarekin bilatzen zen “*gizarte baketsu eta egonkorreko aurrera egitea bultzatzea eta adiskidetzera bilatzea, ez soilik eragin zuzena duen erregioaren onerako baizik eta Europar Batasunaren onerako*”. Kontuan izan behar da agiriak berak esaten duela esperientzia honek emandakoa beste erregioetan ere aplikatu beharra dagoela. **EAJ-PNVk defendatzen du Europar Batasunak funtsezko egitekoa duela Euskadiko gatazka konpontzeko orduan.**

EAJ-PNVren ustez, Europaren integrazioa Estatuaren arteko gatazkekin amaitzeko helburuarekin sortu zela kontuan harturik, gaur egun XXI. Mende honetan ahal duen guztia egin behar duela bere muga barruan ematen den azken gatazka politikoa konpontzeko. Ez soilik esku zabaltasunagatik eta Europaren baloreekiko koherentziagatik, baizik eta mugaz kanpo ere baketzeko eragile funtzioa betetzeko duen egitekoarekiko koherentziagatik ere.

Azken batean, bakeak Europar Batasuna izena duen esparru politikoaren lankidetzeta eta esku zabaltasuna eskatzen du. Irlandako kasuarekin ez bezala, Euskadik ez du diru laguntasunik behar. Dena den, babes politikoa, instituzioen lankidetzeta, gure herriaren eta gure instituzioen onarpena izango da EAJ-PNVk atsedetik hartu gabe bilatuko duena, horrek guztiak lagunduko digulakoan bake eta normalizazio politikoa erdiesteko bidean.

EAJ-PNVk batasuneko instituzioen laguntasuna eta babesa bilatuko du elkarrizketa politikoan eta Giza Eskubideen errespetu zorrotzanean oinarritutako bake iraunkorrerako eszenatokia bultzatzeko eta sendotzeko.